

**Goi
Mailako**

**Arte
plastikoak
eta diseinua**

Inprimatutako produktu grafikorako laguntzako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

**Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza**

**El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du**

Inprimatutako produktu grafikorako laguntzako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

- Ekoizpen grafikoko prozesuko berariazko programak menderatzea eta ekipo informatikoak erabiltzea.
- Bezeroari aurkezteko zirriborroak, maketak eta alegiazkoak prestatzea.
- Zehaztapen teknikoek eta proiektuaren zehaztapenei egokiturik egonen diren originalak prestatzea inprimatzeko.
- Trebezia erabiltzea maketazio eta edizio programak eta testuen tratamendurekin, marrazkiekin eta irudiekin loturiko aplikazioak.
- Proiektu grafiko bat garatzeko orduan emandako eta sortutako informazioa antolatzen, banatzen eta biltzen jakitea.
- Zorrotz eta sentiberakortasunez interpretatzea proiektu grafikoaren egiteko prozesuaren gainean ematen zaion informazio grafikoaren, idatzia edo ahozkoa.
- Ekoizpen grafikoko prozesuaren faseak ulertzea eta aurreinprimatze, inprimatze eta inprimatze-ondoko prozeduretan laguntzea, proiektuko jarraibideekin bat.
- Problema antzematea, kalitate kontrolerako lanetan laguntzea eta ekoizpen grafikoko prozesuko faseetan izaten diren kalitate kontrolerako lanetan eta doitze lanetan laguntzea.

- Produktu grafiko inprimatuetako testu eta irudien tratamendu digitala eskuratzea, zuzentzea, transkribatzea eta egitea.
- Testu eta irudiak maketatzea, proiektuaren ezaugarri estilistiko eta teknikoaren arabera eta originalak prestatzea.
- Erabilitako material eta ekipoen zehaztapen teknikoak xehetasunez ezagutzea eta aldizkako mantentze-lan prebentiborako neurriak antolatzea.
- Diseinua eta ekoizpen grafikoren araudia eta laneko guneko prebentzio eta babes neurriak ezagutzea eta aplikatzea.
- Diseinuaren eta inprimatzearen esparruan erabilitako berariazko kontzeptu eta hiztegiak ulertzea eta erabiltzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Zure jardueraren profesionala gauzatuko duzu besteren konturako langile gisa diseinu grafikoko departamentu edo agentzietan, inprimategietan, argitaletxeetan eta komunikazio grafikoko produktu inprimatuak behar dituzten erakunde edo enpresetan. Halaber, zure jardueraren profesionala gauza dezakezu errealizatzaile independente gisa, goi mailako profesional baten enkarguz, sektore publiko edo pribatuan, komunikazioarekin eta ekoizpen grafiko inprimatuarekin zerikusia duten enpresetan: publizitate agentziak, argitaletxeak,



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional

Arte plastikoak eta diseinua

diseinu estudioak, enpresa edo erakunde publikoetako marketin, publizitate edo diseinu departamentuak, inprimategiak, serigrafia industrialia edo langile autonomo gisa, proiektu grafiko baten zehaztasunak interpretatuz eta testuak eta irudiak tratatzeko, maketatzeko eta konposatzeko lanak eginez.

Hauek dira arloko zeregin eta lanpostu garrantzitsuenak:

- Testuak informatikoki tratatzea, konposatzea eta prestatzea inprimatzeko.
- Irudiak informatikoki tratatzea eta prestatzea inprimatzeko.
- Koloreak banatzea.
- Originalak prestatzea inprimatze lanetan erreproduzitu eta markatu ahal izateko.
- Maketazioko eta edizioko teknikaria.
- Publizitatearekin, argitalpenarekin eta/edo identitatearekin loturiko diseinu grafikoko proiektuak interpretatzea eta elementu grafikoak egitea.
- Zirriborroak interpretatzea eta originalak egitea.
- Hainbat motatako produktu grafikoetako testu eta irudien tratamendua eta konposizioa eskuratzea, zuzentzea eta egitea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Diseinu grafikoaren oinarriak.
- Tipografia.
- Baliabide informatikoak.
- Autoedizioa I / II.
- Komunikazio grafikoak.
- Produkzioa eta inprimaketa.
- Diseinu grafikoaren historia.
- Azken lana.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Prestakuntzaldi praktikoa enpresetan, estudioetan edo lantegietan.